

METODOLOGIA Abenduak 3: 10etan (12ak arte)

2030ean, NOLAKO ESKORIATZA IZAN NAHI DUGU? IHARDUNALDIAK

(Bileraren hasieran karpetak banatuko dira, 3 orri, eguneko dinamika azaltzeko: Lan talde bakoitzaren gaitetia, balantzeren orria, hautagaien proposamenak egiteko orria).

* 10:00etan, Bileraren hasiera: jendeari harrera egin.

* 10:10etan. Dinamikaren hasiera: 10'. Balantzearen aurkezpena (askoz jota 10 minutu, eta jendeari orrialde batean 2 galderak, azalpena bitartean jendea bete dezan orria eta entregatu)

- Nola ikusten duzu Herria: zein indargune eta etorkizuneko aukerak ditu? Zer negatiboa eta indargabetu behar dena?

- Nola baloratzen duzu Ehbilduren lana: Zertan asmatu dugu? Zertan hobetu behar dugu?

10:20etan. EZTABAIDA LAN TALDEGAN. Ordu bat.

Ekarpenak egiteko jendea 4 lantaldetan banatuko da, haien interesaren arabera (hala ere, aukera izango dugu, nahi badugu beste gaien inguruan ere iritzia emateko, horretarako, idatziz ekarpenak bidali ditzakegu) Hoberena: alde zuzenetik prestatuta ekartzea... guztion artean ekarritako ideia eta ekarpenak konpartitzeko.

Lantalde bakoitzak dinamizatzailerik bat izango du. Lantalde bakoitzean orri bat beteko dugu: aterako diren ekarpenak jasotzeko. Taldetako pertsona batek aurkeztuko ditu ideia nagusiak beste guztiei.

1. Lantaldea: Larrialdi ekologikoaren aurrean Eskoriatza nola prestatu.

- Energia trantsizioari nola aurre egin eta gaur egun herrian duguna nola baliatu (Elgea, Ekiola, Sarkraft...)?
- Elikagaiak bertan kontsumitzen eta ekoizten duen herria: km0 aldeko politika iraunkorra? herriko produktoreak? Herriko merkataritzaren papera eta egoera?
- Ingurugiroa jasangarria izateko zein neurri beharko genituzke?

Dokumentua: https://ehbildu.eus/dokumentuak/albisteak/ES_1669400743.pdf

2 Lantaldea: Eskoriatza Euskararen herri bizia: Euskara, kultura eta kirola.

- Herri euskalduna izatea helburua dugu, euskararen erabilera sustatzea: Erabileraren datu kezkarrien aurrean herri erreakzio-egitasmoa nola bultzatu?
- Kultura eta kirola, Euskara eta herri bizitza komunitarioa suspertzeko eta, batez ere, herri harremanak sendotzeko zer egin daiteke?

Bideoak: https://youtu.be/JsS_Iw87B7M

3 Lantaldea: Herrikideen ongizatea ziurtatzen duen herria.

- Zaintza beharren eta krisiaren aurrean: herrian zaintza egoera eta beharrei nola erantzun? Parekidetasuna lantzeko zer egin?
- Osasungintza publikoaren egoeraren aurrean eta anbulatarioekin piztuta dagoen alarma gorrian nola eragin?
- Prekarietate eta desberdintasun sozialei nola aurre egin?
- Aniztasunetik herri integratzailea izateko zer egin?

Dokumentuak: https://ehbildu.eus/dokumentuak/albisteak/EU_1664981207.pdf

Bideoak: <https://youtu.be/Ra9JxiFSetw>

4. Lantaldea: Herriko gazteak duin bizitzeko herria.

Zer bermatu behar dugun herri batean gazteentzat?
Zer falta egiten duen edo zer behar den Eskoriatzan?

11:20etan kafea.

11:30etan. Ondorio nagusien azalpena. 20' (Taldea bakoitzak ideia nagusiak aurkeztuko ditu, ideia horiek hurrengo dinamikan eztabaidagaiak izango dira. Akta bidaliko da).

11:50etan. Hautagaiak aukeratzeko prozesua eta hurrengo bileraren dinamika azaldu. Data adostu.

